



## GOIZUETAKO UDALA

### UDALAK "ELKARTASUNA ELKARTEA" DISOLBATU NAHI DU

1901. urtean Elkartasuna Sozietatea sortu zen Azkote mendiaren ustiapena egiteko, gaur egun "Elkartasuna" mendi bezala ezaguna ere badena. Elkartasuna, mendi aprobetxamenduari lotutako zergak Udalak ez ordaintzeko sortutako instrumentu bat izan zen.

Elkartea herriko zein kanpoko zergadunek osatzen zuten hasiera batean. Gerora, herritar guztiak elkarteko bazkide izateko aukera zabaldu zen. Zuzendaritzaren konposizioan, bestalde, udal korporazioa, herriko hamar zergadun, kanpoko bi zergadun eta "veintena" aurkitzen ziren.

Gizartea asko aldatu da Elkartasuna sortu zenetik, "veintena"-ren figura erabat desagertu da (legezkontrako ere izanik demokrazian), Udala da gaur egun Elkartasunaren ondarea kudeatzen duena, inbertsioak egiten dituena, esplotatzeaz arduratzen dena...

Elkartasuna herriak herriarentzat sortutako tresna izan zen, gaur egun inongo erabilerarik gabe dagoena.

Udalak egoki eta beharrezko ikusten du Elkartasuna sozietatearen disoluzioa egitea, bere ondasunak Udalaren izenean jarriz, hau baita, gaur gaurkoz, herritar guztien organo eta hori baita Udalak ondasun hauetan egin nahi dituen inbertsioak egiteko dirulaguntzak jasotzeko jarraitu beharreko bidea; Tifanitxo eraikinaren egokitzea, esaterako.

Elkartasuna guztiok osatzen dugunez, Udalak bilera informatibo batera deitu nahi zaituzte, Elkaratearen berri emateko erabiliko dena:

#### **BILERA INFORMATIBOA**

Irailak 7an, ostirala, arratsaldeko 18:30tan

Eskolako Jantokian

Bertan ikusiko garelakoan, agur bero bat.



Unai Loiarde Ansa  
GOIZUETAKO ALKATEA